Paris, 1948'ko ilbeltzaren 30 gna

Jaun aberkide maitea,

"Urrundik" zure olerki-liburua irakurri-berria naiz, eta lerro zembait biali nai nizkizuke esateko nolako atsegiña artu detan ura irakurtzean.

Euskerazko irakurgai onak ain xuur izan-ezkero, eta gañera, Euzkadi'ko jaurlaritzean gogo-lantzako burukidea zeralako, zure ezaguera egin nai nuke; zuri idatziz baizik ez bai-dezaket egin, barkatu otoi ene lautasuna.

Barkatu zaidazu, alaber, ez detalako euskera obeto erabiltzen. Jatorriz Zuberotarra naiz, bañan ogei urteak arte euskerarik ez nakien. Ikastolan arrotz-izkuntzak ikasiarren, ene abendarena ez jakitea zer damua zala oartu nintzan orduan, eta ba ditu bi urte euskera ikasten alegintzen ari naizela.

Atsegin nuke euskal-jakintzako gaietaz zurekin itz-egitea idazki-bidez, naiz ez naizen oraindik trebeenetarik gipuzkeran.

Ene gutun au ulertuko dezulakotan alare, egoiten naiz,

zure zerbitzari

J. Mirande

Mr. Jean MIRANDE
106 Bd Davout
Paris XXe